

GARIKOITZ MENDIZABAL

BILBOKO UDAL TXISTULARIEN BANDAKO ZUZENDARIA

«Txistuaren presentzia formatu desberdinetan landu behar dugu»

Gainerako musika-tresna tradizionalak bezala, iragan urrunetik dator txistua, baina etorkizuna ere bada, garaikide izan nahi du. Ondarea gordetzeko asmoz eta berria sortzeko helburuz ari da lanean Garikoitz Mendizabal, duela 10 urte sortutako bandaren zuzendaria.

| MYRIAM GARZIA |

Zer izan da 10 urte hauetako lana?

Bilboko kaleetan asko entzuten da txistua. Ohitura hori mantentzeaz gain, beste zenbait esparru lantzen hasi gara: hamabostean behin Euskalduna jauregian kontzertuak ditugu; diskografia ugaltu dugu, bost bat disko aterata; txisturako idazten ez duten musikariak gureganatu ditugu; Aste Nagusiko txistu alardea antolatzen dugu; kanpora proiektatu gara. Oso trinkoak izan dira 10 urteok, eta zorionez, hasierako gogo berarekin jarraitzen dugu, maite dugulako gure instrumentua.

Ondarea gorde eta bide berriak zabaltzea ez da asmo makala.

Hori erabat barneratuta dauka txistulari banda honek. Gure instrumentua oso egunerokoa da. Kale animazioan, udal protokolo eta lan instituzionalan, dantzari laguntzen, kontzertuak eskaintzen, omenaldietan, elizkizunetan, nonahi entzuten da txistua. Baina XXI. mendeko musikari profesionalak garenez, ezinbestean saiatu behar gara jendeari txistuaren aurpegi anitzak azaltzen. Geure sorpresarako, jendeari harrigarria egiten zaio hori, baita Euskal Herrian bertan ere. Musika lasai eta sentikorra egin dugu *Sosegua* diskoan. Orain new age estiloko gogoeta ari gara lantzen Xabier Zabala musikariarekin. Angel Unzu eta jazz laukote bate-



CRISTINA ANGULO

kin ere produktu bat atera genuen.

Tradizioari lotuta baina garaikide izan nahian.

Beti esan izan dut txistua ez dela inoiz oso modan egon, baina modatik ere ez dela inoiz pasatzen. Guri dagokigu zer eman dezakeen erakustea. Txistua gure historiaren parte da, antzekoak badira mundu guztian, baina gureak ez dauka parekorik, hain musika afintua eta fina egiten duenik ez da munduan, harro egon gaitzke gure txistuaren kalitateaz. Hego Korean egon berri gara eta denak ahoa bere hortz utzi ditugu.

XX. mendean, batik bat 36ko Gerraren ondoren, txistua ikaskuntza ofizial bihurtu zen, eta 70eko hamarkadatik aurrera, musikari profesionalak gara, tituluak. Horrek belau-naldi berriak eta joera aniztasuna ekarri ditu. Gaur egun oso ohikoa da txistua musika

garaikidean entzutea, ganbara musikan, orkestra sinfoniko batekin edota folkean eta horretan du etorkizuna. Txistuaren presentzia formatu desberdinetan landu behar dugu, kalea eta dantza baztertu gabe. Irakaskuntzari dagokionez, txistuak beste errealitatea izango du, zona bakoitzaren araberakoa seguru aski, ez baita berdin jotzen Iruñean edo Bilbon. ■

